

Noaua!!



Jende ugari eta giro
ederra Erle Egunean



NOAUA! Kultur Hamabostaldian
hitzaldiak, antzezlanak eta musika

Albisteak iruditan !!

Pintada arrazista Intxaurreta-ko bus geltokian

Lehengo astean jaso genuen argazki hau e-postaz. Urriaren 31n, goizeko 7:00ak aldera egindako erretratua da. Aginagako Intxaurreta auzoan ateratakoa da, N-634 errepide alboan dagoen bus geltokian. Oraindik ez dugu erabaki zer den harri-garriago: gure etxe ondoan horrelako pintadarik ikusi behar izatea ala esbastikaren ondoan, pintada euskaraz idatzita dagoela ikustea. Izan ere, kastellanoz edo beste hizkuntza batean idatzita egongo balitz, berdin-berdin asaldatu ote ginen? Estetika mailako irakurketak aparte utzita, mezua dakar esaldiak. Eta mezua, edozein dela hizkuntza, arrazista bezain asaldagarria da. Edozein dela hizkuntza, edozein dela lurraldea.



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Borda-berri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari-ko koordinatzailea: Imanol Ubema, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubema, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

AZKEN UDALBATZA PLENOA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

ERLE EGUNA, INOIZKO JENDETSUENA **8. OR.**

OSTEGUN HONETAN, ANTZERKIA **10. OR.**

JOXE AMIAMAREKIN SOLASEAN **12. OR.**

DENBORAPASEN TARTEA **14. OR.**

JUDO TALDEA, OHOREZKO MAILAN **15. OR.**



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

Hau da marka

Eliza Katolikoaren historian, inoiz egindako beati-
fikazio zeremoniarik jendetsuena izan omen zen.
Bai, urriaren 28an Erromako San Pedro plazan gertatu-
takoaz ari naiz. 36ko gerran errepublikanoek hildako
498 fededun martiri izendatu zituzten. Milioi bat per-
tsona bildu ziren bertan. Guinness libururako balentria
baten kronika dirudi. Akaso, horren premian izango da
eliza.

Auskalo, hankasartzea behintzat markakoa izan zen. Jainkoaren aurrean ere, lehen eta bigarren mailako giza-kiak daudela agerian utzi zuten. Izan ere, frankistek akabatu zituzten euskal apaizetaz, aipamen arrastorik ere ez zen egin. Euskal Herrian, gutxienez hamasei izan ziren 1936ko uztailaren 18ko altxamenduaren izenean fusila-tuak izan ziren apaizak. Berriz ere baztertuak izan dire-lako ekarriko ditut gogora: Jose Adarraga Larburu (Hernani), Antonio Bombin (Biasteri), Gervasio Albisu (Erreterria), Joaquin Arin (Arrasate), Jose Ariztimuño *Aitzol* (Donostia), Leonardo Guridi (Arrasate), Joaquin Iturrikastillo (Eskoriatza), Martin Lekuona (Erreterria), Jose Markiegi (Erreterria), Alejandro Mendikute

(Donostia), Celestino Onaindia (Elgoibar), Jose Otano, Jose Ignacio Peñagarikano (Etxebarria), Jose Sagarna (Berriatua), Ramon Urriaga eta Eladio Zelaia (Azkoien).

Honen harira, irakurketa interesgarria topatuko duzue *Sareko Argian*, argia.com webgunean. “Eta Aitzol zergatik ez?” izeneko analisisan, hauxe dio Josu Chuecak: “apezpikuen erabaki honek izaera politikoaren itzala du atzean, Memoria Historikoaren Legearen eztabaida puri-purian dagoen honetan. Beatifikatuko dituzten apaizen artean ez dago frankistek fusilaturiko euskal apaizik. Utzikeria? Aspaldiko posizio politikoaren isla?”.

Zokoratu egin dituzte euren erlijoiokideak eta ez da deskuidoz izan. Hori da larriena. Horregatik, 70 urte eta gero berriz fusilatu dituztelakoan nago. Isiltasunaren hilobira kondenatu nahian edo. Bistan da zaila egiten zaidala Erromako zeremonia handi hura ulertzen. Izan ere, historiak gauzak bere lekuan jarri ohi ditu. Baina Elizak beste aldera begiratzen jarraitzen du. Gernikako adibidea gogorarazi beharko dugu. Euskal apaizak fusilatu zituzten horiek, *gorriek* erre zutela zioten...

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, **NOAUA!**k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. **NOAUA!**k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: azaroak 16. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 12.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Asko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____

1. Abizena: _____

2. Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Telefona: _____

E-posta: _____

[illegible]

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Aurrerantzean, astelehenetik igandera zabalduko dute Eguneko Zentroa

Eguneko Zentroari lotutako bi erabaki hartu ziren aho batez azken plenoan. Batetik, GSR enpresarekin dagoen kontratua urtebetez luzatzea. Horrek berarekin dakar, prezio igoera bat, hain zuzen, eguneko eta pertsonako 43,81 eurori Kontsumo Prezioen Indizeari (KPI) dagokion igoera, %2,2koa.

Bestalde, Eguneko Zentroari lotuta, araudian zenbait aldaketa egiteko udalbatza erabat ados zen. Berrikuntzen artean, bereziki bat aipatu behar da, ordutegiari dagokiona. Orain arte Eguneko Zentroak astelehenetik ostiralera eskaintzen zuen zerbitzua. Laster, eskaintza asteburuetara zabaltu eta, honenbestez, astelehenetik igandera zabalduko da. Hasierako onespina eman zitzaion aldaketa horiei. Laster alegazioen epea zabalduko da eta inork alegaziorik aurkeztuko ez balu, aldaketa horiek behin betiko onartuko lirateke.

Adostasun girorik ez zen izan ordea langileen lan baldintzen testuen inguruko gaian. Alor honetan idatzita dauden agiri guztiak dokumentu batean biltzea zen asmoa. Plantamenduarekin ez ziren ados EAko ordezkariak. Luismari



EGUNEKO ZENTROA KUDEATZEN DUEN ENPRESARI URTEBETEZ LUZATU ZAID KONTRATUA.

Ormaetxearen esanetan, ez zegoen ezer berririk erabakitzeko. Dokumentuak txertatzeko erak aldaketak eragingo zituela eta, ondorioz, alde aurretik hartutako erabakiak ez direla errespetatzen gaineratu zuen. Testuak plenoko mahaian zertan egonik ez zuela eta negoziazio prozesua berriz irekitzea eskatzen zuen. Ondorioz, gaia zerrendatik kentzen ez bazuten, bozketan ez zutela parte hartuko adierazi zuen.

Horri erantzunez, Juanjo Olaizolak Udalaren eta sindikatuen arteko akor-

dioa zela gogorarazi zion Ormaetxeari. Eta onuragarria zela gaia plenora eramatea. Xabier Mikel Errekondok ere ondorio hori nola atera zuen ez zekiela adierazi zion Ormaetxeari. Dokumentu bateratuan jasotzen dena, alde aurretik onartutako puntuak direla argitu zion. Azkenean, EAK ez zuen bozketan parte hartu. Gainerakoak proposamenaren alde agertu ziren. EAJ-PNVko zinegotzia ez zen plenoan izan.

ARITZ GORRITI

Batzorde aldaketak, hurrengo plenorako

Irailleko plenoan Karmele Bengoetxeak hartu zuen Anttoni Bengoetxeak utzitako zinegotzi postua. Bera izango da aurrerantzean, Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika batzorde informatzaileko lehendakaritza kargua izango duena.

Batzordeetan aldaketa gehiago egiteko asmoa zegoen. Kirol batzordea Patronatutik bideratuko denez, orain arteko Kirola eta Gazteria batzordea deuseztatu eta Kultura eta Euskara batzordeari Gazteria arloa eransteko proposamena aurkeztu zen. Baina hurrengo pleno baterako mahai gainean geratu zen gaia.

Aldez aurretik iragarritako gaiez hitz egin ondoren, galderen tarte zetozen.

Irailaren 25eko plenoan EAtik Luismari Ormaetxeak egindako galderak berriro gogorarazi zituen. Udaletxe ondoko urbanizazio berrian egin daitekeen parking-a, esate baterako.

Parking berriaren aukera

200 plaza egiteko zailtasun geoteknikoak zeudela aipatu zuen alkateak. Plaza kopuru maximo gisa planteatu zela eta promotoreek ere gai horretan ez dutela inolako interesik adierazi zuen. Edozein kasutan, udalarentzat aukera bideragarria eta interesgarria bada, bultzatzeko prest agertu zen.

Udalaren webgunea

Udalaren webgunea ere laster prest izango dela adierazi zen plenoan.

Babes ofizialeko

etxebizitzaren behin behineko
zerrenda, ahal bezain laster

Galderen tartean, Luismari Ormaetxea EAko zinegotziak babes ofizialeko etxebizitzaren gaiaz galde egin zuen. Ugartondo eta Olarriondoko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa zertan zen galdetuta, EAE-ANVk zuzentzen duen udal gobernu buruak zera erantzun zuen: zerrendak aztertzen ari direla eta behin behinekoak ahal bezain laster argitaratu nahi dituzten arren, eperik ezin dutela eman gogorarazi zuen berriz ere.

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

Etxean beldur?



Gehiengoak jakingo duzuen bezala, Txokoalden “centro de acogida” deritzen etxe bat egin zuten lehen mendia zainitzen zuen guardetxea zegoen tokian. Bertan, gurasoen arduragabekeriagatik Eusko Jaurlaritzak jasotako gaztetxoak hartzen dituzte, 12 eta 16 urte bitartekoak.

Oso ongi dago familian arazoak dituzten hurrei beste aukera bat eman eta etxean baino zaintza hobeago bat izango duten toki batera eramatea. Kontua da, kasu honetan behintzat gazteek ordu asko igarotzen dituztela gure auzoan zentru horretatik kanpo eta liskar bat baino gehiago izan dituztela auzotarrokin. Behin, gazte hauetako baten iritziz, zentruan gaizki eman omen zioten jaten eta jan eske joan zen auzotar baten etxera; beste batean, autobusean Usurbila joan behar zuela eta diru eske joan zen beste auzotar bate-na eta honek dirurik emango ez ziola esan zionean, orduan kotxean eramateko esan zion gazteak.

Baliteke agian norbaiti gehiegikeria bat iruditzea batzuk etxean, gazte hauen beldur direla esatea, baina, pentsatzen jarritz gero, adineko jendea beti errazago beldurtzen da. Txokoalden etxe berriak, dendak, tren geltokia, tabernak...



egiten ez dituzten gazteak baina gehiago dira adinekoak, beraz arazoa larriagoa da.

Txokoalden gazteak adinekoak baino gehiago izan daitezkeen badakigu zein den bidea, pixkanaka auzoa berritzen eta bizitza sortzen joatea. Badirudi ordea norbaiti ez zaiola hau interesatzen eta orain zentru hau ireki dute eta aurrera joan beharrean atzera goazela dirudi.

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Beti berdin!



Gaueko hamarrak dira, asteazkena, lane-tik zatoz neka neka eginda, etxera iris-teko irrikitan. Autoan zoaz lasai lasai, baina amaitu da bakea. Autoa non aparkatu dut? Hementxe hasten da eguna bukatzeko betiko kalbarioa. Autoa non utzi behar dut?

Aparkaleku guztiak lepo daude, bai Aristitxu kalean, Erdiko kalean, Beheko kalean... Espaloi gainean uzten baduzu eta hurrengo egunean isunik gabe aurkitzen baduzu autoa, zorteduna zara. Beste aukera kotxea Mahaspildegi soziedade aurrean dagoen aparkalekuan uztea da. Nork uzten du bertan autoa? Auzoko gutxik, askotan kamioiak egoten dira aparkalekuko alde guztiak okupatuaz eta nahiz eta argiak jarri, ez da atsegina, zure autoa ilun eta zuhaitz artean dagoen toki batean uztea.

Lotsagarria da, aurki ibilgailua hartu eta etxera eraman beharko dugu lepo gainean hartuta. Nik ez dakit zein den arazo honen irtenbidea baina badira lau urte gutxi gorabehera horrela gabiltzala eta ez da batere atsegina egunero kontu berarekin ibiltzea. Zer egin behar dut etxeko bal-koian lotan jarri ea noiz libratzen den toki bat, ondo apartzeko? Gure auzoak hainbeste etxe berri egin beharrean, aparkaleku bikain baten premian dago.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Ekitaldi piloa begibistan

Azkenaldian herrian hainbat ekitaldi Aeta merkatu dauzkagu aprobetxatu ahal izateko. Urria pasa da eta urtero bezala azaroan sartzen garenean hainbat eta hainbat azoka eta peri egiten ditugu herrian. Azaroaren batean “Santu guztien” egunean arisau azoka ospatzen da Aitzagaren eskutik, giro ederra izan genuen aurtengoan ere. Eta azaroaren 4an urtez urte geroz eta gertuago ospatzen den “Erle Eguna”. Oso jarraian izaten dira baina ez horregatik arrakasta gutxiagoz, aurtien VII Ezti Lehiaketa ospatu da eta epaimahai berriak aritu dira erlez inguraturik eztiaren goxotasunak azaltzen. Bi egunak aprobetxatzeko modukoak izan dira eta nahi izan duenak zer ikusi eta erosia ere izan du.

Baina bada hil honetan aspaldiko urtetan ospatzen ez zen egun horietako bat eta nik pertsonalki faltan botatzen nuen eguna: azaroaren 17an, alegia, Ikasle Abertzaleek antolatutako “Ikasle Eguna” ospatuko da gure herrian. Izango dira jada bost bat urte horrelakorik egiten ez zenik.

Beraz, haur eta gazte helduxeago zein helduak bada zer eginik, animatu guztiok eta ia aspaldian ez bezalako giroa sortzen dugun denon artean gure herri txiki hone-tan.



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Zuberotarrekin bazkaria



Azken urte hauetan bezalaxe aurtengoan, Aere azaroko lehenbiziko larunbatean, aurten 3an, ospatu zen Sagardo Afaria Zuberoako Urdiñarben. Bezperatik joan ziren afariko lanak aurreratzera hemengo lau lagun: denen buru Joxe Mari Eizagirre "Aldapa", gure sukaldaria, eta berari laguntzen Aihert Goia, Migel Anjel Goenaga eta Juanxto Padrones. Aurtengoa izan da zazpigarren aldia Aginaga, Usurbil eta Zubietako jendeek afaria prestatu dutena Urdiñarbeko Bil-Xoküa elkartean. Afaritara beste hiru gehiago joan ginen hemendik, denetara zazpi, eta bertan beste ehun eta hamar zuberotar bildu ziren.

Ukuiluko lanak bukatu ondoren hasten dira inguratzen Urdiñarbe eta Muskildiko baserritarrek afari honetara. Badakite afari goxoa eskaintzen dela, eta aitortu ere aitortzen dute ez dutela askotan jaten horrelako arrain zopa eta horrelako makailu tortilarik.

Tortila ondoren txuleta ederrak jartzen dira mahai gainean. Eta hau dena Urdairako sagardoarekin bustita. Postrea ere goxoa: Azkorria markako gazta, Urdiñarben bertan egina, eta Parisen Frantziako txapelketan bigarren geratu zena, zilarrezko dominarekin.



Afari ondoren giro ederra izan zen nagusi. Bertan izan genituen Zuberoa bertako eta Baigorriko kantariak. Beti bezala, gaua luzea suertatu zen.

Zuberoaz gozatzeko ez dago bertako jendearekin harremanak estutzea bezalakorik. Aurten ez baduzu posible izan, badakizu hurrengo urtean ere azaroaren lehenbiziko larunbatean izango dela berriro. Animatzen bazara, ondo hartua izango zara.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Zergatik ez?



Unibertsitaterako lan bat egiteko eskatu zidaten lehengoan. Amonaren garaiko hezkuntza sistema aztertzeke eskatu zidaten. Horrela, amonaren etxera joan eta elkarrizketa bat egin nion. Orain, ordenadorearen parean nagoela, amonaren lana ikusi dut alde batean, eta zergatik ez? Zuei zerbait kontatzea bururatu zait.

Harrigarria da zenbat aldatu diren gauzak, zenbat garatu den hezkuntza sistema urte luze batzuetan. Lehen adibidez, ez zuten gaur egun dugun askatasunik, eta kate motzean lotuak egoten ziren. Gaur egun ez bezala, zigorrez beteriko zerrenda bat zuten buruan, noizbait ezarriko ez zietelako itxaropen galduan. Material aldetik ere ez zituzten gaur egungo aurrerapen guztiak, ezta teknologia aldetik ere.

Baina, hala ere, pozik joaten ziren eskolara...

Izan ere, garai hartan zorte handia zen ikasi ahal izatea, zorte handia zen lana egin beharrean ikasten egotea... Eta hala da, nire amonak behintzat ez du oroitzapen txarrik eskolari buruz, agian oroitzapen txarren zakuan bat bera ere ez duelako, edo besterik gabe, ahaztu egin nahi izan dituelako.

Eta orain ulertzen dut zergatik esaten didan amonak behin eta berriz: "Maddi, aprobeitza ezazu aukera, eta ikasi ahal duzun guztia", eta arrazoia ematen diot.

ZUBIETA

XABIER ARREGI

Kuxidadea

Sentiberak gaude zubietarrok zaka-rrak eta zaborrak direla eta. Azken boladan ondo asko ikasi dugu, zer gaiden, ontzi egokian bota behar direla hondakinak. Halaxe ari gara geroen burua hezten.



Hala ere, frontoi estalira edo herriko plazara arrimatzan denak panorama itsusia aurkituko du maiz. Ohitura hartu dute batzuek jan-edatekoak eta erretze-koak bertan egiteko eta, noski, txukun jokatzu gero ez dago zer esanik. Baina, zoritxarrez, soberakin guztiguztiak bertan botata uzteko ere ohitura hartu dute.

Ez naiz gaueko festaz ari, hori baino kontu sinpleago batez baizik. Lanbide Eskolatik atsedan-orduan datozen ikasle helduen jokabideaz ari naiz. Askok eskatzea al da sobran geratutakoa jaso eta ontzietan botatzea?

Ondorenean, Eskola Txikiko haurrek ibili behar al dute ikasle helduagoek utzitakoa jasotzen?

Akaso sinplekeria baino ez da esaten ari naizena, baina horrelako kontutxoetan erakusten da zer garen. Ikasleok, sobratzen zaizkizuenak bota itzazue ontzi egokietan eta bazterrak txukun utz itzazue. Eskerrik asko.

Erle Eguna, gero eta arrakasta handiagoa duen azoka

Jende asko bildu da aurtengo Erle Egunean. Eguerdiko 13:00ean, gainezka ziren ezti, ogi eta bestelako elikagaiekin Dema plazan jarritako saltokiak. Ezti Lehiaketak ere, jakinmin handia piztu zuen; bereziki, sari banaketak. 69 izan ziren lehiaketara aurkeztu ziren ezti-egileak. Lore bakarreko lehiaketan, Joxe Telleria beasaindarra izan zen nagusi. Lore-anitzeko ezti lehiaketan, Joxe Zurutuza (Lezo).

Gozogintza lehiaketan, Joseba Pellejerok eraman zuen bigarren saria. Lehen saria, ordea, Dolores Bordarentzat izan zen. Ezti-lehiaketan, lore-anitzen artean, Lezoko Jose Zurutuza izan zen nagusi. Bigarren, Aitor Zabala (Pasai Donibane) eta hirugarren Miren Lizasoainen ezti (Lizarra). Lore-bakarreko ezti lehiaketan, ordea, Jose Telleriak (Beasain) irabazi zuen. Bigarren izan zen Anastasio Mujika (Legazpi).

Nabarmentzekoa da epaimahaikide lanetan aritu zirenen ahalegina. Tartean, lau sukaldari izan ziren: Martin Berasategi, Hilario Arbelaitz, Iñaki Izagirre eta Asier Abal. Bi antzezle: Martin Gervasoni eta Esther Esparza; eta hauekin batera, Juanjo Mendioroz, gastronomia aditua.

Postre lehiaketan, Manu Piñeiro eta Jakoba Errekondo izan ziren epaimahaikideak.

Ezti sarituak, 2.300 eurotan

Ezti irabazleen enkantean, Esther Esparza izan zen diru gehien eskaini zuena. Bi ezti irabazleak eraman zituen 2.300 euroren truke.



ANASTASIO MUJIKA, JOXE TELLERIA, JOXE ZURUTUZA, AITOR ZABALA
ETA MIREN LIZASOAIN, EZTI LEHIAKETAKO IRABAZLEAK.

266 partehartzaile Marrazki Lehiaketan

Aurten, lehen aldiz, Marrazki Lehiaketa egin da eta erantzuna paregabea izan da: 266 izan dira aurkeztu diren marrazkiak.

Irabazleak hauek izan ziren: Peru (3 urte), Ekhi Kamino (4 urte), Vicky Rivera (5 urte), Eneko Agirresarobe (6 urte), Olatz Allur (7 urte), Tamara Palacios (8 urte), Lide Zumeta (9 urte) eta Eukene Uli (10 urte). Ezti pote bana eskuratu zuten. Era berean, aipatzekoa da Askatasuna plazan egin zen yogur eta ezti banaketan, jende asko erakarri zuela Porrotx pailazoak.



EKHI KAMINO, GLOBO ETA GUZTI
IGO ZEN TAULA GAINERA SARIA
HARTZERA.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Artisauak lanean izan ziren Santu Guztien egunean

Santu Guztien egunarekin ospatu ohi da Artisautza Azoka. Baina hala ere, ez da oharkabea pasatzen. Aurtengoan ere, jende ugari hurbildu zen frontoiaren bueltan. Aitzaga elkarteak antolatu zuen azoka honetan, esku-langintzako artista ezberdinen lanak ikusi eta erosteko aukera izan zen.

Iragarri bezala, iaz hasitako eskultura lantzen aritu zen Jose Luis Elexpe "Pelex". Egur taila hori, aurrerantzean, Artisautza Azokaren ikurra izango da.

Aldarrikapenerako tartea ere izan zen. Dema plazan, errauste-plantari buruzko informazio panelak jarri zituen Usurbil Bizirik taldeak, errausketaren aurkako taldeak.



AZOKAN ZEHAR, OTARRAK EGITEN JARDUN ZUEN ARTISAU HONEK.

Nafartarrak taldeak bertso-afaria antolatu du

Usurbilgo Nafartarrak kultur taldearen eskutik hurbilduko dira gure artera Fredi Paia eta Xabier Sukia bertsolariak. Abenduaren 15ean larunbata, Agerialden egingo den bertso-afarian hartuko dute parte.

Garaiz abisatu ez genuenik ezin esan. Hilabete falta da oraindik baina bertso-afariaren xehetasunak dagoeneko eza gutzen ditugu. Agerialdeko jangelan egingo da bertso-afaria, gaueko 21:00etan hasita. Txartela erosi beharko da aldezturik: 18 eurotan, Lizardin edo Txiribogan.

Menua hauxe izango da: patatak makailauarekin, saiheskia, mamia eta kafe konpletoa. Ondoren, bertso-saioa.



XABIER SUKIA ETA FREDI PAIA BERTSOLARIAK ARITUKO DIRA ABENDUAREN 15EKO BERTSO-AFARIAN.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAU31A 10- atzealdean
943 372 795

Industri eta iragarri
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
Kamiseten inprimaketa
OSU
943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USURBIL

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3- 943 361 106
Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Ostiralean, Gose taldearen kontzertua

Trikitia eta elektronika uztartu dituen talde honek arrakasta erdietsi du

Donostiako sex-shop batean aurkeztu zuen Gose taldeak bere lehen diskoa. Sexua delako kantuetako letren ezau-garri nagusietako bat. Baina Gosereren beste ezaugarria trikitiaren eta elektronikaren uztarketa da. NOAUA! Kultur Hamabostaldiaren eskutik, Sutegin izango dira ostiral honetan, gaueko 22:30ean. Sarrerak NOAUA!n eta Txirristran erosi daitezke aldez aurretik. Egunean bertan, Sutegin ere izango dira salgai.

Sexuaz kantatzea eta trikitia elektronikarekin uztartzea "gauza naturala" izan da Gose taldekoentzat. Ines Osinagak diskoaren aurkezpenean azaldu zuenez, "inguruko gauzei buruz hitz egiten dugu kantuetan, eta sexua horietako bat da; diskoa ez dugu egin sexuaz hitz egiteko, natural atera zaigu".

Sustraietatik aldenduz

Bestetik, trikitia esparru elektronikoetara eramanez ez diete uko egin nahi beste estiloei, "fandangoa eta arin-arina oso ondo daude, gustatzen zaizkigu, baina beste gauza batzuk ere egin daitezke trikitiarekin, sustraietatik aldenduz".

GOSE

"Fandangoa eta arin-arina oso ondo daude, baina beste gauza batzuk ere egin daitezke trikitiarekin"

Zentzu horretan, estilo ezberdinetatik edaten dute. Gose taldearen kantuetan elektro-jazza, techno, punka, arin-arina edota hard-corearen eragina suma daiteke. Era horretan, trikitia "erromeria, berbena, txapela, lehiaketa eta enparauetatik atera eta klubetara" eraman nahi izan dute.



GOSE, BILBOKO ASTE NAGUSIAN. ARGAZKIA; RAMON OSINAGA.

Carlinhos Brownekin batera

Duela bi urte aurkeztu zuten lehen diskoa. Ordutik, "Eutsi!" euskal filmaren soinu bandan hartu dute parte. Jaialdi ugari eskaini dituzte. Uda partean, Carlinhos Brownen *telonero* izan dira hainbat kontzertutan.

Eskarmentu handikoak

Hiru dira Gose taldea osatzen duten kideak: Ines Osinaga (ahotsa, trikitia, panderoa eta konponketak), Tadeos (sekuentziak eta konponketak) eta Iñaki Bengoa (sekuentziak eta konponketak). Elkarrekin egiten duten lehen diskoa da Gose, baina hirurak eskarmentu handikoak dira musikagintzan, Osinaga Ekenon aritutakoa da eta Bengoa eta Tadeos, Bad f-Linen.

KONTZERTUA: Gose.

LEKUA: Sutegiko auditorioa.

NOIZ: Azaroak 9 ostirala, 22:30h.

SARRERA: Aldez aurretik, 10 euro (Txirristran eta NOAUA! egoitzan). Takilan bertan, 12 euro.

NOAUA!ko bazkideek, 8 eurotan eskuratu dezakete sarrera baina aldez aurretik eta NOAUA!ko egoitzan bakarrik.

Ostegun honetan, antzerki saioa Sutegin

Eman bira... bestaldea ikusi arte. Hori da ostegun honetako antzerki saioaren izenburua. Taula gainean lau azpeitiar arituko dira: Igor Aranbarri, Kepa Urbietta, Alaitz Olaizola eta Gurutze Eizmendi. "Hasiera batean definitzen zaila den zerbait egin nahi genuen antzerkia eta poesia uztartuz. Helburua, poesiari umorea eta antzerkiari sakontasuna ematea izango da", dio Igor Aranbarrik.

ANTZERKI TALDEA: Lakrikun.

LEKUA: Sutegiko auditorioa.

NOIZ: Azaroak 8 osteguna, 20:00h.

SARRERA: 5 euro, Txirristran eta NOAUA! egoitzan. Bazkideek, 3 euro baina NOAUA!n bakarrik.



Euskal arrantzaleen itsas bidaiak azalduko ditu Jon Maia bertsolariak

Jon Maia bertsolari zumaierak iaz liburu bat argitaratu zuen, "Apaizac obeto" izenekoa. Orain, liburuaren haritik hitzaldiak egiten ari da. Sutegin azaroaren 13an asteartea izango da, gaueko 20:00etan hasiko den hitzaldian.

Iazko ekainaren 5ean Pasaiatik Quebecera abiatutako itsas ibilaldian oinarrituta dago "Apaizac Obeto" liburua. Aipatzekoa da Bizkaiko Liburu Saltzaileen Elkarteak Jon Maiaren liburua saritu zuela udaberrian, euskarazko liburuen atalean.

Abentura horretako kronikekin osatu dago, hain zuzen, Jon Maia bertsolariak egokitu duen liburua. Baina

beste helburu bat ere badu lan horrek: XVI. mendeko euskal arrantzaleen bizimodua ezagutzea eta garai hartako itsas kontuak helaraztea. Izan ere, Pasaiatik ateratako espedizio hura helburu horrekin egin baitzen. Orain, Jon Maia istorio horiek kontatzen dabil herriz herri. Datorren astean, gure artean izango da NOAUA! Kultur Hamabostaldiaren eskutik.


HITZALDIA: "Apaizac Obeto".

HIZLARIA: Jon Maia.

LEKUA: Sutegiko auditorioa.

NOIZ: Azaroak 13, asteartea, 20:00h.

SARRERA: doan.



PASAIATIK QUEBEC ALDERA EGIN ZUEN ITSAS IBILALDIAZ HITZ EGINGO DU
JON MAIA BERTSOLARIAK.



Panpinak eta aktoreak Deja Buren antzezlanean

Sari nagusia irabazi zuen Deja Bu panpina laborategiak Bizkaian eginiko ACT Nazioarteko Eszena Talentu Berrien Jaialdian. "Covek nije tika: Gizona ez da txoria" ikuskizunarengatik eman zioten saria taldeari. Lan hori da Usurbilen aurkeztuko dutena. Txotxongiloek eta aktoreek elkarrekin bat egiten dute ikuskizun honetan. Bosniatik Euskal Herrira etorri den emakume baten istorioa kontatzen du. Gerrak suntsitutako herritik ihesi egin ostean, Selmak Simon aurkituko du. Simonek bizitza osoa baserrian eman du, baina azpiegitura erraldoi bat dela medio, hiriko pisu batera bidali dute. Egoera horretan egingo dute bat bi pertsonaiek, grina ezkutu batek batzen dituelarik: atzean utzi duten mundura hegan itzultzekoa.

ANTZERKIA: 'Covek nije tika: Gizona ez da txoria', Deja Bu taldearen eskutik.

LEKUA: Sutegiko auditorioa.

NOIZ: Azaroak 16, ostirala, 22:30h.

SARRERA: 5 euro (Txirristan eta NOAUA! egoitzan). Bazkideek, 3 eurotan baina aldeztu aurretik eta NOAUA!ko egoitzan.

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Joxe Amiama, psikopedagogian aditua

“Komunikazioa oso garrantzitsua da familian”

Komunikazioa eta hari lotuta, haurtzaroko estimulazioak eta nerabezaro garaian seme-alabekin izan beharreko diziplina. Hortaz jardungo du Joxe Amiama psikopedagoak Udarregi ikastolan Haur Hezkuntza, LH eta DBHko ikasleen gurasoei eskainiko dizkien hitzaldietan. Hitz Aho Guraso Eskolak antolatu du ekimena.

NOAUA! Komunikazioa eta familia. Nola planteatzen duzu bi kontzeptu horien arteko lotura?

Joxe Amiama. Familian komunikazioa elementu giltzarria da, oso garrantzitsua. Baina nerabezaroan askotan seme-alabek markatzen dute gurasoekin izan beharreko harremanaren erritmoa; haiek esaten dute askotan noiz nahi duten hitz egin eta noiz ez. Txikiak direnean prozesua alderantzizkoa izan ohi da.

Bestalde, diziplina dago. Horretarako, guk ikasi duguna zigorra erabiltzea izan da. Baina beste estrategia egoki batzuk daude. Diziplina beti gogorra da, guraso bezala seme-alabekin beti goxo egon nahi dugu eta. Gainera, familia guztiak ezberdinak dira eta horregatik, beti emandako informazioa egokitu behar dugu. Horretaz hausnartu nahi da.

JOXE AMIAMA

“Gaur egun afektibitatea balore oso garrantzitsua da familian, bikotean...”

N. Zein dira gurasoek gehien planteatzen dituzten zalantzak edota kezak?

J. A. Nerabezaroan gai izarra, diziplina izan ohi da. Haur txikiak oro har, ez beti, gurasoek esandakoa onartzen dute indartsuagoak direlako. Nerabezaroan aldiz, aldaketa handia dago. Hor seme-alabek zer egin nahi duten esaten dietela konturatzen dira gurasoak. Aldaketa horiek gurasoentzat akats bihurtzen



UDARREGI IKASTOLAN HAINBAT HITZALDI ESKAINIKO DITU JOXE AMIAMAK.

dira. Horregatik askotan hori izaten da gai garrantzitsua, egoera nola berbiderratu jakiteko. Batzuetan, guraso bezala *nik esaten dudalako*, batzuetan erabili eta mantendu behar da. Baina kasu askotan jada ez du balio. Ondorioz, erabilitako estrategia hori aldatu beharra dago.

